

Gorengo taldeak hasi du aurre denboraldia, joan den urtean baino talde gazteagoarekin

■ Joan den astelehenean hasi zuten pretenporada eta asteen 4-5 egunetan entrenatzen ari dira ■ Denboraldia irailaren 7an hasiko da ■ Entrenatzaile lanak Paco Martinezek egingo ditu Jon Loranek lagunduta ■ Aurtengo helburua da jendeak Zubipera jaisteko ohitura berriz hartzea.

HERNANIKO Gorengo taldeak hasi ditu aurre denboraldiko entrenamenduak. Denboraldia irailaren 7an hasiko dute eta saiatuko dira ordurako puntuak jartzen. Entrenatzaile postua Paco Martinezek hartuko du, eta Jon Loran ariko da berari laguntzen. Prestatzaile fisikoa Juan Carlos Samaniego Tximist izango da. Entrenatzen 27 gazte hasi dira, eta horietatik 21-22 gazterekin gelditzeko asmoa daukate. Martinez eta Loran gogoz daude denboraldiari hasiera emateko, eta berak daukaten gogo hori jokariengan ere ikusten dute.

Helburua Zubipe indartzea

Entrenatzaileek garbi daukate poliki-poliki joan behar dutela jokua eta intentsitatea hartzen. Motzera begira, ekipo inguruko giroa piztea da helburua, Jon Loranek esan digunez. Maila deportiboan, berriz, Gorengo ligan goi-goian ibili nahiko lukete. Paco Martinez oso ilusionatuta dago taldearekin, eta Kronikari jakin arazi dionez, konfidantza haundia dauka gazteengan: "Taldea jende berri asko dago eta horrek aldaketa bat suposatzen du. Orain talde gazteagoa daukagu eta gogo haundiz etortzen dira futbolera. Oraingo intentsitateari eusten badiogu, mutilek ondo erantzungo dute. Ziur nago".

10 gazte jubeniletatik

Taldearen plantila asko aldatu da iaztik. Momentu honetan 27 gazte ari dira entrenatzen. Horietatik 12 dira iaz Gorengoan jokatu zutenak eta gainerako guztiak aurtun etorritakoak dira. Iaz Hernaniko jubeniletan jokatzeko zutenak 6



Hernaniko Gorengo taldean 27 gazte ari dira aurre denboraldia egiten. Asteen 4-5 egunez egiten dute 2 orduko entrenamendua.

dira eta kanpoko talderen batean jokatzeko zutenak 4; iaz Hernaniko Errejonalean jokatuak 2; kanpotik etorri edo ekarriak 3 dira eta bada bat edo beste aurreko urteetan Hernanin jokatuak eta berriz etorri dena ere. Azkenean jokatuak 21-22 izango dira eta zein izango diren abuztua erdialderako edo erabakiko dute.

Fisikoa eta teknika

Aurre denboraldian jokariak berriz sasoian jarri behar izaten dute, eta horretarako entrenamendu gogorrak agintzen dizkiete entrenatzaileek. Hernaniko taldeak asteen 4-5 egunetan entrenatuko du liga hasi arte, eta 2 ordu inguruko entrenamendua egingo dituzte. Juan Carlos Samaniego Tximist da Gorengo prestatzaile fisikoa eta berak esan digunez, entrena-

dira eta kanpoko talderen batean jokatzeko zutenak 4; iaz Hernaniko Errejonalean jokatuak 2; kanpotik etorri edo ekarriak 3 dira eta bada bat edo beste aurreko urteetan Hernanin jokatuak eta berriz etorri dena ere. Azkenean jokatuak 21-22 izango dira eta zein izango diren abuztua erdialderako edo erabakiko dute.



Talde teknikoa: 'Tximist', Martinez eta Loran.

joango dira, gero eta gehiago. Bataz beste, aurre denboraldiko entrenamendu bakoitzean 8-10 kilometro egiten dituzte, kilometroko serieak eginez edo distantzia luzeagoko bidean.

Lagunarteko partidua

Aurre denboraldian, partidu bat baino gehiago jokatzeko dituzte taldeak, beren jokariak zein sasoi puntutan dauden jakiteko. Gorengo taldeak datorren asteburuan jokatu du, ia seguru, eta aurre denboraldi guztian, 3-4 jokatu nahiko lituzkete, Paco Martinez entrenatzaileak Kronikari esan dionez.

CD Hernani

CD Hernaniko beste taldeak ere martxan jartzen hasiak dira. Dagoeneko jubenilak hasi dira entrenatzen eta beste taldeak ere berahala hastekoak dira. Aurtun denek izango duten arazoetako bat izango da Zubipeko zelaiaren egoera. Konponketak egin dizkiote puskatuena zegoen tokietan, baina, oraindik kostako zaio hasieran bezala jartzen. □

HERNANI TABERNA
Tiloseko taberna berria

- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Hamburgesak
- Sandwichak

Terraza, telebista,...

HERNANI TABERNA - Ezkiaga pasealekua -
943 55 44 76 - HERNANI

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 653 74 10 97
20120 Hernani

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani

Jose Olaizola Gabarain musikari hernaniarra jaio zela aurten bete dira 120 urte

■ Jose Olaizolak musika eta euskal kulturaren alde egin zuen lana ■ Olaizola organista izan zen Donostiako Santa Maria parrokian.

JOSE Olaizola Gabarain jaio zela aurten bete dira 120 urte. Jose Olaizola Hernanin jaio zen 1883ko urtarrilaren 27an, eta ezaguna da musikan eta euskal kulturean egindako lanagatik. Bilbon eta Donostian omendu egin zuten eta Hernaniko Udalak *Herriko Seme Kuttun* izendatu zuen. Donostiako Santa Maria elizako organista izan zen; Donostiako Orfeoiko errepasatzaile eta zuzendari laguntzaile; Euskaltzaindiako kide; Euskal Herriko Txistulari Elkartearen sortzaileetako bat; musika irakasle; Eusko Ikaskuntzako parte hartzaile eta abar. Musika konposatzaile bezala egin zuen lan nabarmenena. Konposatu zituen lanen artean daude: *Aupa Mutillak*, *Ixil-ixilik*, *Malko bat*, *Agur Begoñako*, eta abar. Antzerki lan batzuk ere egin zituen. Horien artean: *Oleskari-zarra* edo *Gora antziñeko legiak*. Poesia ere idatzi zuen: *Udaberri*, Baionan saria jaso zuena.

Olaizolaren bizitza

Jose Olaizola Gabarain 1883ko uztailaren 27an jaio zen, Hernaniko Kardaberaz kalean, 70 zenbakian. Txikitatik oso gustokoa izan zuen musika, besteak beste, lau osaba bertsolari zituelako eta elkarrekin lehiari asko gozatzen omen zutelako, familian zeudenean-eta.

Ikasketa oinarritzakoak Hernaniko Musika Eskolan egin zituen Manuel Zendoia irakasle zuela: solfeo, armonia, pianoa eta organoa ikasi zituen. 1899an, 16 urterekin, Donostiako Arte Ederretako Eskolara joan zen ikasketei segida ematera. Armonia, Kontrapuntoa, Konposizioa, Organoa eta Ahotsa estudiatu zituen, Etxeberria, Jauregi, Zendoia, Anton del Saz eta Sainz irakasleekin. Ikasketak bukatu eta perfektionatzen aritu zen Lizarriturri, Agesta, Mujika eta Santesteban irakasleekin.

1906an ezkondu zen Teresa Etxeberriarekin eta urte hartan bertan lortu zuen Donostiako Santa Maria parrokiako organo-jole postua. Ordurako San Pedro elizan ere organista zen, eta bere akademia txikia ere jarri zuen. Akademia hartan ikasi zutenen artean daude: Gelasio Aranburu, Regino Sorozabal, Angel Cabanas, JM Zapiain eta Enrique Jordá, adibidez.

Hil arte izan zen Santa Maria elizako organista, gerragatik 17 urte herbestean egon behar izan bazuen ere. Cissac-



Jose Olaizola, Eusko Ikaskuntzaren VII Kongresuan.

Medoc (Frantzia) herrian pasa zituen urte horiek Olaizolak.

Musika sortzaile bezala lan izugarria egin zuen eta sari bat baino gehiago jaso zituen horri eskerrak. Baina, bazuen Olaizolak beste zaletasun bat



Hernaniko Udaletxean dago Olaizolaren irudia, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1983an jarria, euskal musika eta kulturaren alde egindako lanagatik.

ere: euskal kultura. Euskal antzerkia eta poesia idatzi zituen eta 1965ean Euskaltzain urgazle izendatu zuten.

Jose Olaizola 1969an hil zen 86 urte zituela. Urte hartan bertan omenaldia egin zioten, Donostiako Principe Antzokian, Gipuzkoako Korallak, Euskal Txistularien El-

karteak, Donostiako Santa Maria parrokiak eta beste talde batzuk.

Olaizolaren obra

Musika konposatzaile bezala egin zuen Olaizolak lanik nabarmenena. Musika erlijiosoan 110 obratik gora konposatu zituen: *Ave Maria*, *Deitu Orduko*, *Eskual Meza*, *Elevación*, *Artzayak...* Musika ez erlijiosoan 90 obratik gora utzi zituen, koralerako, txisturako, pianorako eta abar: *Agur Jau-nak*, *Kunkulun*, *Maite oroi*, *Ama gaxua!*, *Etxeratzián*, *Zezena dator arkupetatik*, *Asto Ipuilaria*, eta abar. Obra horiek guztiak ERESBIL artxibo musikalean daude, baina, bat baino gehiago dira herbeste garaian galdutakoak ere.

Musikaz gainera euskal kulturaren egin zuen lana Olaizolak. Poesiak, ipuiak, antzerkiak, estanpa musikalak eta abar egin zituen. Guztira 43 obra baino gehiago.

Lortutako sariak

Olaizolak sari asko jaso zituen egindako lanengatik. Saritutako lanen artean daude 5 antzerki lan: *Oleskari Zarra* (Donostiako Udalak saritua), *Bigar arte?*, *Jai-jai!*, *Gora Antziñeko legiak* eta *Baso jauna*. Eta poesia bat: *Udaberri*. □

Kandido Sagarzazu la Santè-ko kartzelan sartu zuten igandean

■ ETArekin zerikusia duelakoan atxilotu dute.

KANDIDO Sagarzazu Hernanin urte askoan bizitutako donostiarrak Frantziako *la Santè*-ko espetxean dago joan den igandea ezkerotzik. Sagarzazu asteazkenean harrapatu zuen Frantziako poliziak Frantziako Cahors herrian, ETArekin zerikusia izatea leporatuta. Bera-ekin zeuden beste bi lagunak Claude Recart baionarra eta Mikel Illarramendi oñatiarra dira. Hiru atxilotuak epaiketaren zai daude orain.

Sagarzazu, Recart eta Illarramendi harrapatu zituztenean armak gainean zeuzkaten hiru gazteek, eta Cahors herriko etxebizitzan leherkariak, matrikula faltsuak eta matrikulak egiteko materiala aurkitu zituen poliziak, zenbait notizia agentziek esan zutenaren arabera.

Askatasuna erakundeak bidalitako prentsa ohar batek dioenez “atxilotuek tratatu egokia” izan dute komisarian. □

■ ERREMONTEA - CASINO KURSAAL



Urko erremonista, Galarreta frontoian.

Promesen Bi-bitako Txapelketan bi partidu gaur Galarretan

■ Jaialdia 16:00etan hasiko da ■ Astelehenean Iturralde-lon eta Zalakain-Olazarrek irabazi zuten.

CASINO Kursaal Promesen Bi-bitako txapelketa aurrera dijoa. Gaur txapelketako bi partidu izango dira. Juaristi-Gazteluk jokatu beharko dute Matxin V-Badiola bikotearen kontra; eta Uterga-Landerrek Matxin III-Agirrezabala izango dituzte aurrean. Bi partidu horiek jaialdi baten barruan dijoaz eta lehendabiziko eta laugarren partiduak izango dira. Jaialdia Galarretan jokatuko da, gaur, 16:00etan hasita.

Asteleheneko emaitzak

Astelehenean ere jokatu ziren

Promesen Bi-bitako Txapelketako partiduak. Lehenbizikoa Iturralde eta Ionek irabazi zuten 30-35, Matxin IV eta Aizpurua IIren kontra. Bigarrena Larreak eta Urrutiak 35-20, Zalakain eta Olazarren kontra.

GALARRETAKO GAURKO PARTIDUAK 16:00etan hasita

- 1-Casino Kursaal Txapelketa. Promesak Juaristi - Gaztelu / Matxin V - Badiola
- 2-Bigarren partidua Altuna - Etxeberria III / Bitoria - Etxabe
- 3-Hirugarren partidua Bereziartua - Aizpurua II / Sarasua - Urko
- 4-Casino Kursaal Txapelketa. Promesak Uterga - Lander / Matxin III - Agirrezabala

ESKERTZA

Juan Zabaleta Arbide

(Joxe Jabier Zabaleta Elozei “Baldo” preso politikoaren aita)

Familia eta ingurukoek eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zeraten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO Hernanin 2003ko abuztuaren 6an.

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko denda batek transportista behar du, goizero 06:30etatik 07:30etara. Interesatuak deitu 943 55 49 66.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalizaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalaria anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- Eguez: Gomez Justel Kale Nagusia 14 ☎ 943 554892
- Gauze: Gomez Justel Kale Nagusia 14 ☎ 943 554892